

- Kontagailu bakoitzeko urtean 6 euro ordaindu behar da Iburguren, 2008ko uztailaren 15a.- Erregidorea-lehendakaria, JESÚS MARTÍNEZ URRRA.

ONDATEGI**5050****Hilerriaren erabilera arautzeko ordenantza**

Zioen adierazpena

Ondategiko Kontzejak hilerri txikia du. Bestalde herriak gero eta biztanle gehiago dauka. Beraz, zerbitzu hobea eskaintzeko asmoz, ezinbestekoa da gutxienezko aurreikuspen eta antolaketarekin hilerria hobeto kudeatzen lagunduko duen araudi bat izatea.

I. TITULUA

Xedapen orokorrak

1. artikulua.- Ondategiko Administrazio Batzarraren hilerriaren jabea kontzejua da eta ondasun hori jabari eta zerbitzu publikoa izanik, haren zuzendaritza, administrazioa, erregulazioa eta kontserbazioa kontzejuari dagozkio, ordenantza honetan adierazten den moduan, beste agintaritza edo erakundeen eskumenekoak diren alorretan izan ezik.

2. artikulua.- Ondategiko Administrazio Batzarraren Kontzejuari dagokio:

- . Hilerria antolatzea, onik zaintzea eta egokitzea.

- . Hilerriaren barne erregimena.

- . Partikularrei baimena ematea hilerrian obrak edo instalazioak egiteko, bai eta haiek ikuskatzea eta zuzentzea ere, udal lizentzia eskatu behar den edo ez alde batera utzita.

- . Hilerriaren jabea eta entitate publikoa den aldetik haren gain har ditzakeen bestelako zereginak.

3. artikulua.- Partikularrei honako eskubide eta zeregin hauek dagozkio:

- . Hilerrian lurperatze duina izateko eskubidea, norberaren erlijio eta ideologiarekin bat.

- . Bai Ondategiko Administrazio Batzarraren Kontzejuak bere eskumenen erabilera ematen dituen xedapen guztiak, bai beste administrazio edo entitate eskudunak hilotzen osasun-betebeharrei buruz ematen dituztenak errespetau eta betetzea.

II. TITULUA

Kudeaketa, administrazioa eta kontserbazioa

4. artikulua.- Hilerriak honako instalazio hauek dauzka:

- . Lurrean banakako hilobiak egiteko lekua
- . Administrazio Batzarraren jabetzapeko horma hilobiak
- . Partikularren horma hilobiak
- . Hezurtegia
- . Ereku libreak

5. artikulua.- Hilerriaren kudeaketak ondoko helburuak ditu:

- . Hilerriaren administrazioa eta haren ordena eta garbitasuna zaintzea

- . Hilotzak hilobiratzea

- . Bai hilerriaren elementu, eraikin eta instalazio komunak kontserbatu, mantendu eta garbitzeko lan eta zerbitzuak, bai elementu horien funtzionamendurako behar direnak egitea

6. artikulua.- Ondategiko Administrazio Batzarraren Kontzejuak funtzio administratibo eta teknikoak egiteko eskumena du, bere helburuak betetzeko.

7. artikulua.- Ondategiko Administrazio Batzarraren Kontzejuak hilerriaren barruan ordenari eutsiaraziko dio, eta bertako funtzioek eskatzen duten begirunea exijituko du.

- Por cada contador 6 euros/contador al año
En Iburguren, 15 de julio de 2008.- El Regidor-Presidente, JESÚS MARTÍNEZ URRRA.

ONDATEGI**5050****Ordenanza reguladora del uso de cementerio**

Exposición de motivos:

El Concejo de Ondategi dispone de un espacio relativamente reducido para el servicio de cementerio, este hecho, junto con las tendencias al crecimiento de las posibilidades de población y en aras a una mejor prestación del servicio, hace necesario disponer de un Reglamento que permita gestionar el cementerio con unas mínimas bases de previsión y organización.

Título I

Disposiciones generales

Artículo 1.- El cementerio de la Junta Administrativa de Ondategi es propiedad exclusiva de su Concejo al que, como bien de dominio y servicio público, corresponde su dirección, administración, regulación y conservación en los términos que se indican en la presente Ordenanza, salvo en aquello que sea competencia propia de las autoridades y los organismos.

Artículo 2.- Corresponde al Concejo de la Junta Administrativa de Ondategi:

- . La organización, conservación y acondicionamiento del cementerio.

- . El régimen interior del cementerio.

- . La autorización a particulares para la realización, en el cementerio, de las obras o instalaciones aceptadas por la presente Ordenanza, así como su dirección e inspección, con independencia, en su caso, de las oportunas licencias municipales.

- . Cualesquiera otras funciones que puedan corresponderle atendiendo a su carácter de propietario y a su condición de entidad pública.

Artículo 3.- Corresponden a los particulares:

- . El derecho a la inhumación digna en el cementerio, en consonancia con su religión e ideología.

- . Respetar y cumplir cuantas disposiciones dicte el Concejo de la Junta Administrativa de Ondategi en el ejercicio de sus competencias u otra Administración o Entidad competente en lo referente a policía sanitaria mortuoria.

Título II

Gestión, administración y conservación

Artículo 4.- El cementerio consta de las siguientes instalaciones:

- . Terreno para sepulturas individuales en tierra
- . Nichos propiedad de la Junta Administrativa
- . Nichos propiedad de particulares
- . Osario
- . Zonas libres

Artículo 5.- La gestión del cementerio comprende los siguientes objetivos:

- . La administración del cementerio y el cuidado de su orden y policía

- . La inhumación de cadáveres

- . La realización de obras, servicios y trabajos necesarios para la conservación, entretenimiento y limpieza de los elementos, edificios e instalaciones comunes del cementerio, así como el funcionamiento de éstas.

Artículo 6.- El Concejo de la Junta Administrativa de Ondategi está facultado para realizar las funciones administrativas y técnicas conducentes al cumplimiento de sus fines.

Artículo 7.- El Concejo de la Junta Administrativa de Ondategi velará por el mantenimiento del orden en el recinto del cementerio, así como por la exigencia del respeto adecuado a las funciones del mismo.

8. artikulua.- Tokiko hileta zerbitzuek ondoko eskumenak dituzte:

- Ondoko erregistroen ardura:
 - . Hilobiratuen erregistroa
 - . Gorpuzkiak hilobitik ateratzeen eta garraioen erregistroa.
 - . Hilobien erregistroa
- Erregistro horiei dagozkien idazpenak horretarako dagoen liburuan edo liburuetan egitea.
 - Elementu, eraikin eta instalazio komunak mantendu, kontserbatu eta garbitzeko zerbitzua.
 - Hilerriaren zerbitzuekin loturiko beste edozein zeregin.

9. artikulua.- Ehortz lekuak garbitzeko, apaintzeko eta mantentzeko lanak partikularren zeregin dira. Lan horiek egiten direnean, bai ehortz lekua, bai ingurua aurretik zeuden moduan utzi beharko dira gutxienez, eta sortutako hondakinak eta erabilitako gaiak eta lanabesak handik kendu beharko dira. Partikularren batek bere ehorzte lekua behar bezala zaintzen ez badu eta hondatuta baldin badago, Kontzejuak titularrari egoera hori zuzentzeko eskatuko dio, eta, ematen zaion epean lanak burutzen ez baditu, Kontzejuak egin ahal izango ditu subsidiariotasunez, partikularren kontura.

10. artikulua.- Hobiratzeak, hilobitik ateratzeak, leku aldaketak eta hilerrian egiten diren bestelako lanak partikularrek egingo dituzte. Kontzejuaren ordezkariak ikuskatuko ditu lanak.

III. TITULUA.

Partikularren horma hilobiak

Titularrek eta horien lege jaraunsleek ahal izango dituzte erabili horma hilobiak epe mugarik gabe.

Titularrek edo jaraunsleek saldu nahi badute Administrazio Batzarrak 360 euro ordaindu beharko ditu, kontzejuak hartutako erabakiarekin bat etorrira eta halaxe jaso baitzen 1993ko ekainaren 20an akta liburuan.

IV. TITULUA

Norbanakoen hilobiak zona erkidean eta administrazio batzarraren jabetzapeko horma hilobietan

11. artikulua.- Ondategiko Administrazio Batzarraren Kontzejuak horma hilobi eta denontzako eremuko banakako hilobi kopurua zehaztuko du. Biak aldi baterako emango dira. Lehenengoak hamabost urterako eta bigarrenak hamar urterako. Dena dela, horretarako ehorzketa eskubidea izango da.

12. artikulua.- Bai lurrian, bai Administrazio Batzarraren horma hilobian, egoteko denbora hobiratze egunetik hasiko da kontatzen, hobiratzeen erregistroan jasota dagoenaren arabera. Hamaikagarren artikuluan ezartzen den epea amaitutakoan, administrazio batzarraren kontzejuak gorpuzkiak hilobitik aterako ditu egoki irizten dionean, Dena den, ahal bada, oinordekoei jakinarazi behar izango zaie aldez aurretik. Oinordekoek nora eraman adierazi ezean, gorpuzkiak hezurtegi komunean utziko dira, berreskuratzeko markarik edo bereizgarririk gabe.

V. TITULUA

Ehorzketa eskubideak

13. artikulua. Horma hilobien jabeek eta lehen lerruneko senideek euren jabetzapeko horma hilobiak erabili beharko dituzte, 15 urte baino gutxiagoko ehorzketa egin denean izan ezik.

14. artikulua.- Ondategiko Administrazio Batzarraren Kontzejuak ehorzketa eskubideak (13. artikuluan jasotakoak izan ezik) aitortuko dizkie hiltzeko unean honako talde hauetakoren batean dauden pertsonen:

- . Herriko biztanle guztiei, bertan erroldatuta badaude urtebete aurretik gutxienez. Urtebeteko epe horri ez zaio jaramonik egingo, heriotza bat-batean, ustekabeen edo istripuz gertatzen bada.

Artículo 8.- Corresponden a los servicios funerarios locales las siguientes competencias:

- Llevar los siguientes registros:
 - . Registro de inhumaciones
 - . Registro de exhumaciones y traslados
 - . Registro de sepulturas
- Practicar los asientos correspondientes a dichos registros en el libro o libros habilitados para tal fin
 - Servicio de mantenimiento, conservación y limpieza de elementos, edificios e instalaciones comunes
 - Cualquier otra función relacionada con los servicios del cementerio

Artículo 9.- Las labores de limpieza, mantenimiento y ornato de las unidades de enterramiento corresponden a los particulares. Deberán realizarse con respeto a las instalaciones, de modo que una vez concluidas estas actividades, el espacio intervenido y su entorno queden, al menos, en las mismas condiciones que se daban con anterioridad a las intervenciones, retirándose inmediatamente los residuos generados, los materiales y las herramientas empleadas. En caso de que algún particular no cumpliera con sus deberes de conservación y se apreciara estado de deterioro, el Concejo requerirá al titular del derecho afectado para que corrigiera esa situación, y si no realizara los trabajos en el tiempo señalado, el Concejo podrá realizarlos de forma subsidiaria, a cargo del particular en cuestión.

Artículo 10.- Corresponde a los particulares la realización de los trabajos materiales que sean necesarios en el recinto, tales como las operaciones ordinarias de entierros, exhumaciones, traslados y similares. Tales trabajos se realizarán bajo la supervisión de un representante del Concejo.

Titulo III.

Nichos particulares

La utilización de los nichos será para los titulares de los mismos y herederos legales de éstos, sin límite de tiempo.

En caso de que los titulares o herederos deseen venderlo, será siempre a la Junta Administrativa, que abonará la cantidad de 360 Euros, según acuerdo tomado en Concejo y recogido en el libro de actas con fecha 20 de Junio de 1993.

Titulo IV

Sepulturas individuales en zona común y nichos de propiedad de la Junta Administrativa

Artículo 11.- El Concejo de la Junta Administrativa de Ondategi, establecerá el número de sepulturas en zona común y el número de nichos, ambos en régimen de cesión temporal, por un plazo de 10 años en el caso de sepulturas de zona común y de 15 años para los nichos, para todos aquellos que cuenten con derecho funerario en su cementerio.

Artículo 12.- Las estancias en terreno de zona común y nichos propiedad de la Junta Administrativa se empezarán a contar a partir de la fecha de la inhumación que conste en el registro de inhumaciones. Transcurrido el plazo establecido en el artículo 11, el Concejo de la Junta Administrativa, procederá a la exhumación de los restos cuando lo considere necesario, dando cuenta previamente a los herederos, si éstos fueran localizables. En el supuesto de que los herederos no dispongan otro destino, los restos serán depositados en el osario común, sin marca ni identificación para su recuperación.

Titulo V

Derechos funerarios

Artículo 13.- Los propietarios de nichos y sus familiares de primer grado deberán utilizar los nichos de su propiedad, salvo que se encuentren ocupados con una inhumación de menos de 15 años.

Artículo 14.- Los derechos funerarios, salvo los recogidos en el artículo 13, serán otorgados y reconocidos por el Concejo de la Junta Administrativa de Ondategi a las personas que en el momento de su fallecimiento se encuentren en alguno de los siguientes grupos:

- . Todos los vecinos de la localidad empadronados en la misma con un mínimo de un año de antigüedad. Esta exigencia de antigüedad no se considerará si el fallecimiento sobreviniera de modo súbito e imprevisto o accidentalmente.

. Herriko biztanlea izan eta erretiroa hartu arte bertan bizi izan direnei, osasuna, familia edo bestelako arazoak direla eta, une horretatik aurrera bizilekua aldatu badute ere.

. Aurreko taldeetako en lehen mailako senideei, ehorzketa esku-bidearen titularrekin batera hiltzen badira. Atal honetan izatezko biko-tekideak sartzen dira.

15. artikulua.- Ehorzketa eskubidea aitortzean, eskubide hori hobeto zehazteko, hilerriko lur erabilgarria dagokion planoan adieraziko da.

16. artikulua.- Honakoetan ehorzketa eskubidea iraungi egingo da eta berriro geratuko da Ondategiko Administrazio Batzarraren kontzejuaren eskuetan:

. Hilobiak zaindu ez eta aurri bihurtuta daudenean. Eskubidea iraungitza jo aurretik txosten teknikoa egingo da eta konpontzeko edo egokitzeko emandako epeak ez direla bete egiaztatuko.

. Ehorzketa eskubidea araudi honetan onartutakoaren aurka erabiltzen denean.

. Hamaikagarren artikuluan zehaztutako aldi baterako emakida epea igarotzean.

Ehorzketa eskubidea iraungi izanak kontzesioa bertan behar geldituko du. Galera horrek ez du kalte-ordainik sortuko.

Azken xedapena

Behin betiko onartu eta Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hamabost egun igaro ondoren sartuko da indarrean ordenantza hau.

1. eranskina

Hilobietan eta horma hilobietan onartutako obrak eta instalazioak Ehorzketa leku bakoitzean plaka bat jarri ahal izango da: 50 cm luze, 37'5 cm zabal eta 3 cm lodi marmolean, eta haren gainean nahi izandako hileta zeinu, datu eta aipamenak grabatuko dira. Plaka material bereko kantorean jarri ahal izango da, baina multzoaren gehieneko garaiera 25 cm izango da.

Hilobietan bertako plaka baino ezin izango da erabili nahi diren zeinu, datu eta aipamenak grabatu ahal izateko. Horra horiek administrazio batzarrak zehaztutakoak lotuko zaizkie.

2. eranskina

Aldi baterako (hamabost urte) utzitako hilobiarengatik 240 euro ordainduko dira. Emakida aitortzean ordaindu beharko da zenbateko hori.

Tasak urtero aztertu eta onartuko ditu kontzejuak.

Ondategi, 2008ko ekainaren 8a.- Lehendakaria, JUAN MIGUEL MIMENZA.

SABANDO

5076

Auzolanen ordenantza

Kontzeju honek, 1997ko apirilaren 5eko bilkuran, ondorengo Auzolanen Ordenantza onartzeko egindako espedienteari hasierako onarpena eman zion. Espediente hori jendaurrean egon zen bitartean erreklamaziorik aurkeztu ez denez gero, behin betiko onartzen da. Ondorioz, Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauaren 16.4. artikulua eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 70.2 artikulua ezartzen dutenaren ildotik, testua oso-osorik ematen da argitara, indarrean jar dadin.

AUZOLANEN ORDENANTZA

1. artikulua.- Xedea

Ordenantza honek kontzejuko auzolanak arautzea eta zehaztea du helburu, Kontzeju buruzko martxoaren 20ko 11/1995 Foru Arauak 44. artikuluan xedatzen duenari jarraituz. Kontzeju kideek kontzejuari nahitaez eskaini beharreko zerbitzuak dira auzolan horiek.

. Quienes habiendo sido vecinos de la localidad y residiendo en ella habitualmente hasta la edad de su jubilación, cambien a partir de ese momento su lugar de residencia por razones de salud, familiares o sociales.

. Quienes siendo familiares en primer grado de los incluidos en los primeros grupos, les sobreviviera la muerte de modo simultáneo con los titulares originarios del derecho funerario. En este apartado se incluyen las personas integrantes de parejas de hecho.

Artículo 15.- A los efectos del otorgamiento del derecho funerario y su mejor identificación, el suelo aprovechable del cementerio quedará señalado en el plano correspondiente.

Artículo 16.- Se declarará la caducidad de un derecho funerario, que revertirá al Concejo de la Junta Administrativa de Ondategi, en los siguientes supuestos:

. Por el estado ruinoso o abandono de las sepulturas, tras informe técnico e incumplimiento de los plazos dados para su reparación y acondicionamiento.

. Por el uso del derecho funerario en contra de lo dispuesto en el presente Reglamento

. En cualquier caso, por el transcurso del plazo de concesión temporal fijado en el artículo 11.

La declaración de caducidad del derecho funerario conllevará la extinción de la concesión otorgada sin derecho a indemnización.

Disposición final

La presente Ordenanza, entrará en vigor una vez aprobada definitivamente, a los quince días de su publicación completa en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Alava.

Anexo 1

Obras e instalaciones aceptadas en las sepulturas y nichos

Se aceptará la instalación en cada sepultura de una placa con las siguientes dimensiones máximas: 50 cms de largo, 37'5 cms de ancho y 3 cms de espesor en mármol, sobre la que se grabarán los signos, datos y citas funerarias deseadas. Dicha placa podrá soportarse sobre un atril del mismo material, sin que el conjunto sobrepase una altura máxima de 25 cms.

En los nichos sólo podrá utilizarse la placa propia de los mismos para la grabación de los signos, datos y cifras funerarias deseadas, que atenderán a la tipología determinada por la Junta Administrativa.

Anexo 2

Se establece una tasa de 240 Euros para concesión temporal de los nichos por todo el tiempo en vigencia del mismo, quince años, a realizar en un único pago en el momento de dicha concesión.

Las tasas serán revisadas y aprobadas anualmente por el Concejo.

En Ondategi, a 8 de junio del 2008.- El Presidente, JUAN MIGUEL MIMENZA.

SABANDO

5076

Ordenanza de Veredas

Habiendo sido aprobado inicialmente por este Concejo, en sesión celebrada el día 5 de abril de 1997, el expediente confeccionado para aprobar la Ordenanza de Veredas que a continuación se detalla, y no habiéndose presentado reclamaciones durante el periodo de su exposición al público, queda definitivamente aprobado. Por lo que se lleva a cabo su publicación íntegra para su entrada en vigor, a efectos de lo establecido en el artículo 70.2 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, de Bases de Régimen Local, y en el artículo 16 de la Norma Foral 41/1989, de 19 de julio, Reguladora de las Haciendas Locales

ORDENANZA DE VEREDAS

Artículo 1.- Objeto

Esta ordenanza tiene por objeto la regulación y definición de las veredas concejiles, entendidas como prestaciones personales obligatorias, que se han de producir en este Concejo, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 44 de la Norma Foral de Concejos, 11/1995, de 20 de marzo.